2012IAKU0009

# 58. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2012ko irailaren 27an, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**Bertaratutako zinegotziak:**

Iñaki Ostolaza Esnal jn.
Azis Alberdi Zaldunbide jn.
Eneko Agirre Maiora jn.
Maitane Agirre Arrieta and.
Montse Arana Perez and.
Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.
Ana Arranz Irigoyen and.
Edurne Egaña Manterola and.
Isidro Fernandez Echave jn.
Emiliano Cabañas Gonzalez jn.
Aitor Leiza Alberdi jn

**Ez bertaratutako zinegotziak:** Arritokieta Gonzalez Elosua and.

**Jarduneko Idazkaria:** Amaia Gonzalez Iribar

## EGUNEKO AZTERGAIAK

### 1.1.- Zumaiako Arau Subsidiarioen laugarren aldaketari 19 H.A. Oikia dagokionari, behin-behineko onarpena ematea.

Alkateak esan du hirigintza batzordean dagoeneko ikusita dagoen gai bat dela, eta Oikiako eskola berria egiteko beharrezkoa den beste urrats bat besterik ez dela. Behin osoko bilkurak dokumentua behin-behineko izaeraz onartuta, ingurumen sailera eta COPUra bidaliko dela behin betiko txostenak bideratu ditzaten; horiek udalari helaraztean osoko bilkurak behin betiko izaeraz onartuko du arauen aldaketa hori.

Ana Arranzek dio beraiek ados daudela hirigintza batzordean azaldutako guztiarekin. Emiliano Cabañasek ere ez du ezer gehitzeko.

## ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **12 boto** ( 5 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia**: Zumaiako Arau Subsidiarioen laugarren aldaketa, 19 H.A. Oikiari dagokiona, behin-behineko izaeraz onartu da.

### 2.1.- BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena: Preso gaixoen eskubideen aldekoa.

Alkateak adierazi du onartu beharreko adierazpenaren puntuei dagokionez adostasun batera iritsi direla EAJ-PNV alderdiarekin eta jarraian ondorengo testua irakurri du:

"Giza eskubideen ikuspuntutik egoera gordina ari gara bizitzen. Azken asteetan, Josu Uribetxeberria presoaren osasun egoera atzera ezina izan dugu mahai gainean. Legea beteaz, eta berandu bada ere, baldintzapeko askatasun egoeran geratu da preso arrasatearra. Hala ere, ba dira oraindik gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Hamahiru herritar hain zuzen ere. Egoera hau, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzea ari da eragiten. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.

Hamahiru preso gaixo hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: Espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu bereziturik; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten

aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik; Josu Uribetxeberriaren kasuan, argudio guzti hauek dagoeneko Madrilgo Barne Ministeritzatik ere berretsi dira.

Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasunaren ondoren, beste hamahiru dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta aipatutako argudioa berdinak kontutan izanik, kaleratu behar direnak. Hamalau preso eta beraien senitartekoak zigor gehigarria ari dira nozitzen. Preso hauei baldintzapeko askatasuna ukatuz, giza eskubideen oinarrizko zutabeak urratzen ari da Madrilgo arduradun politikoak.

Nazioarte zein estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenek, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona presoen eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek, beharrezkoa duten tratamendua eta zaintza medikua behar bezalako baldintzetan jasotzea, oinarrizko eskubidea delarik.

Hau guztia kontutan harturik, honako puntu hauek aurkezten ditugu Osoko Udal Batzarrera, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezen:

1.- Udal honek, Nazioarteko eta Espainiako legedia aplikatuz gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoen baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera honek, bai beraientzat zein beren senitartekoentzat ere, zigor gehigarria suposatu ez dezan.

2.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministerio eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratzea, eta baita komunikabideei ere."

Montse Aranak (EAJ-PNV) esan du 2 puntuak bozkatzen eta onartzen direla ulertzen duela eta horiekin daudela ados, ez BILDUk azaldutakoarekin eta, ondorioz, ondorengoa adierazi nahi duela: "Azken hamarkadetan, euskal herritarren gehiengoak, pertsona ororen giza eskubideen errespetua aldarrikatu eta eskatu du, zalantza gabe arbuiatu dituelarik berauen edonolako urraketak eta elkarrizketaren alde egin du gatazkak konpontzeko tresnatzat hartuz.

Euskal gizarteak demokrazia eta etika eskatzerakoan izan duen iraunkortasuna erabakiak hartzera bultzatzeko ezinbestekoa izan da, guztioi aro berri bati ekiteko aukera emateko. Indarkeriaren ondorioen aurrean, biktima eta presoen aurrean, neurri berriak ezartzeko eta oinarri demokratikoak ez besterik erabiliz, gatazka politikoa konpontzeko aukerari heltzeko denbora.

Azken hilabete hauetan jakin izan dugu badirela presoak gaixotasun larriak dituztenak, eta presondegietan jarraitzen dutenak. Guzti honengatik, udalbatzak hurrengo hau onar dezan proposatzen dugu:

1.- Udal honek, nazioarteko eta Espainiako legedia aplikatuz gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoen baldintzapeko askatasuna eskatzen du.

2.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministeritza eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratzea."

Alkateak dio beraiek esandakoa berretsi egiten dutela.

Emiliano Cabañasek (PSE-PSOE) esaten du bozketan abstenitu egingo dela azalpenak garrantzia duelako nahiz eta azken bi puntuak bakarrik onartuko diren eta horiekin ados dagoen Zuzenbidezko estatuan gaudelako. Esaten du hipokresia dela giza eskubideak errespetatu ez badira gero horien errespetua eskatzea; giza eskubideak maila guztietan errespetatu behar direla. Adierazten du Estatuak ez duela zertan talde terrorista baten aginduak jaso; beste gauza bat dela etorkizunean lortu daitezkeen akordioak baina giza eskubideak aplikatzea eskatu ahal dela zuzenbidezko estatua errespetatzen denean.

Alkateak adierazten du instituzio bat direla eta giza eskubideak aldarrikatu behar direla leku eta momentu orotan eta ez intermitenteki. Adierazten du Rajoyk berak esan zuela “la grandeza de la democracia es el Estado de Derecho” eta harritu egiten diola Emilianok bestea esatea; koherentzia aplikatu nahi dutela dio.

Emiliano Cabañasek dio udalaren izenean adostuko diren bi puntuekin ados dagoela baina arrazoien azalpena ez dela instituzioarena, BILDU taldearena baizik. Adierazten du separatu egin dituela bi puntuak eta azalpena eta bera ez dela Udala instituzioarekin sartu.

Alkateak berretsi egiten du azaldutakoa.

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **11 boto** (5 BILDU, 5 EAJ-PNV,1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **1 boto** (1 PSE-PSOE)

**Erabakia**: BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena, Preso gaixoen eskubideen aldekoa, onartu da.

**3.- ESKARI-GALDERAK**

Montse Aranak (EAJ-PNV) adierazi du bi idatzi aurkeztu zituztela udaleko erregistroan irailaren 17an eta bertan, hondakinen lan mahaia osatzea eta bestelako datuak eskatzen zituztela. Oraindik ez dutela erantzunik jaso eta ea horren inguruan ea zer esan dezakeen galdetzen dio Alkateari.

Alkateak adierazi du hondakinen kudeaketarako mahai teknikoa osatzen ari direla eta urratsak eman ahala informazioa emango dutela.

Montse Aranak epeei buruz galdetzen du.

Alkateak esan du urriaren lehenengo edo bigarren astean bilduko dela lan mahaia gutxi gora behera.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean eta nik, jarduneko Idazkariak, fede ematen dut.

Alkatea                                                    Jarduneko Idazkaria

2012IAKU0009

**ACTA DE LA SESION PLENARIA nº 58**

En la villa de Zumaia, siendo las diecinueve horas del día veintisiete de septiembre de dos mil doce, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial del Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión ordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

**Presidente:** Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

**Concejales:**

Sr. Iñaki Ostolaza Esnal
Sr. Azis Alberdi Zaldunbide
Sr. Eneko Agirre Maiora
Sra. Maitane Agirre Arrieta
Sr. Montse Arana Perez
Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua
Sra. Ana Arranz Irigoyen
Sra. Edurne Egaña Manterola
Sr. Isidro Fernandez Echave
Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez
Sr. Aitor Leiza Alberdi

**No asisten:** Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua

**Secretaria Accidental:** Amaia Gonzalez Iribar

## ORDEN DEL DÍA

**1.1.- Aprobación provisional, si procede, de la 4ª modificación puntual de las NN.SS. de Zumaia, referida a la AU. 19 – OIKIA.**

El alcalde ha manifestado que se trata de un tema ya tratado en la comisión de urbanismo y que no es más que otro trámite para conseguir el objetivo final que es la construcción de la nueva escuela de Oikia. Una vez que el Pleno apruebe el texto con carácter provisional se remitirá el documento al departamento de medioambiente y a la COPU para que emitan los informes definitivos; remitidos éstos al ayuntamiento el pleno deberá aprobar la citada modificación de normas con carácter definitivo.

Ana Arranz manifiesta que están de acuerdo con todo lo tratado sobre el tema en la comisión de urbanismo. Emilio Cabañas dice no tener nada que añadir.

### PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: **12** ( 5 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 1 ARALAR)

Votos en contra: **0**

Abstenciones: **0**

**Acuerdo:** Se ha aprobado provisionalmente la 4ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Zumaia, referida a la AU 19 – Oikia.

**2.1.- Propuesta presentada por el grupo municipal BILDU a favor de los derechos de los presos enfermos.**

El alcalde manifiesta que han llegado a un acuerdo con el grupo político EAJ-PNV en lo que se refiere a los puntos que se someterán a votación y a continuación ha leído el siguiente texto:

“Estamos viviendo una situación muy cruda desde el punto de vista de los derechos humanos. Las últimas semanas hemos tenido sobre la mesa la situación irreversible del estado de salud, del preso Josu Uribetxeberria. En cumplimiento de la ley, aunque tarde, el preso de Arrasate ya está en libertad condicional. A día de hoy, todavía hay presos gravemente enfermos que siguen en prisión. Trece ciudadanos concretamente. Esta situación está agravando su estado físico y aumentando la inquietud de sus familiares. Se les están negando los derechos que tienen como personas y como presos.

El tratamiento y seguimiento de las enfermedades que sufren estos trece presos, es incompatible con su mantenimiento en prisión por las siguientes razones: la cárcel no puede dar tratamiento especializado; estas enfermedades necesitan un cuidado riguroso; la falta de capacidad de dar una respuesta ante una posible urgencia estando en la cárcel; en el caso de Josu Uribetxeberria, se han reafirmado ante el Ministerio del Interior de Madrid todos estos argumentos.

Después de la puesta en libertad condicional de Josu Uribetxeberria, atendiendo a los mismos argumentos antes mencionados, hay que excarcelar a los trece presos que padecen enfermedades graves e incurables. Estos trece presos y sus familiares están sufriendo un castigo añadido. Negando la libertad condicional a estos presos, los responsables políticos de Madrid están quebrantando los pilares básicos de los derechos humanos.

Las normas, principios jurídicos y reivindicaciones a favor de los derechos humanos tanto internacionales como del estado español declaran la necesidad de respetar los derechos de las personas presas que tienen enfermedades graves e incurables. Estas personas tienen que recibir el tratamiento y cuidados médicos que necesiten y en las condiciones requeridas, porque es un derecho básico.

Teniendo en cuenta todo ello, presentamos estos puntos al Pleno de este Ayuntamiento para que sean debatidos y aprobados:

1.- Este Ayuntamiento, teniendo en cuenta las leyes internacionales y españolas, pide la libertad condicional para los presos con enfermedades graves e incurables. Para que reciban los tratamientos de salud necesarios en las condiciones convenientes y que esta situación no suponga una condena añadida para ellos y sus familiares.

2.- Este Ayuntamiento comunicará esta decisión al Ministerio del Interior y al Juez de Vigilancia Penitenciaria de Madrid, así como a los medios de comunicación."

Montse Arana (EAJ-PNV) manifiesta que entiende que la votación y la aprobación se refieren a los dos puntos y que ellos están de acuerdo con éstos, no con lo expuesto por BILDU y que, por tanto desean exponer lo siguiente: "Azken hamarkadetan, euskal herritarren gehiengoak, pertsona ororen giza eskubideen errespetua aldarrikatu eta eskatu du, zalantza gabe arbuiatu dituelarik berauen edonolako urraketak eta elkarrizketaren alde egin du gatazkak konpontzeko tresnatzat hartuz.

Euskal gizarteak demokrazia eta etika eskatzerakoan izan duen iraunkortasuna erabakiak hartzera bultzatzeko ezinbestekoa izan da, guztioi aro berri bati ekiteko aukera emateko. Indarkeriaren ondorioen aurrean, biktima eta presoen aurrean, neurri berriak ezartzeko eta oinarri demokratikoak ez besterik erabiliz, gatazka politikoa konpontzeko aukerari heltzeko denbora.

Azken hilabete hauetan jakin izan dugu badirela presoak gaixotasun larriak dituztenak, eta presondegietan jarraitzen dutenak. Guzti honengatik, udalbatzak hurrengo hau onar dezan proposatzen dugu:

1.- Udal honek, nazioarteko eta Espainiako legedia aplikatuz gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoen baldintzapeko askatasuna eskatzen du.

2.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministeritza eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratzea."

El alcalde manifiesta que ratifican lo expuesto.

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE) manifiesta que se va a abstener en la votación debido a que a pesar de que se vayan aprobar únicamente los dos puntos finales y de que esté de acuerdo con los mismos por encontrarnos en un Estado de Derecho, la exposición realizada tiene su importancia. Manifiesta que es una hipocresía no haber respetado los derechos humanos y después solicitar que sean respetados. Dice que los Derechos humanos son para respetarlos a todos los niveles. Manifiesta que el Estado no puede recibir órdenes de un grupo terrorista de qué hacer y qué no hacer. Dice que otra cosa son los acuerdos a los que se pueda llegar en el futuro, pero que la aplicación de los derechos humanos hay que pedirlos cuando se respete el Estado de Derecho.

El Alcalde manifiesta que son una institución y que deben promulgar los derechos humanos en todos los sitios y momentos y no de forma intermitente. Señala que le extraña que el propio Rajoy afirmara que "la grandeza de la democracia es el Estado de Derecho" y que Emiliano diga otra cosa. Manifiesta que quieren ser coherentes.

Emiliano Cabañas manifiesta que está de acuerdo con los dos puntos que se acuerdan en nombre del Ayuntamiento pero que la exposición de motivos no es de la institución, sino del partido BILDU. Señala que ha separado los puntos y la exposición y que no se ha metido con la institución del Ayuntamiento.

El alcalde manifiesta que se ratifican en lo expuesto

**PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **11** (5 BILDU, 5 EAJ-PNV,1 ARALAR)

Votos en contra: **0 boto**

Abstenciones: **1 boto** (1 PSE-PSOE)

**Acuerdo:** Se aprueba la propuesta presentada por el grupo municipal BILDU a favor de los derechos de los presos enfermos

**3.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Montse Arana (EAJ-PNV) manifiesta que con fecha 17 de septiembre presentaron en el registro del ayuntamiento dos escritos en los que solicitaban la creación de la mesa de trabajo de residuos y otros datos. Dice que todavía no han recibido ninguna contestación y pregunta al Alcalde qué puede decir sobre el tema.

El alcalde contesta que están constituyendo la mesa técnica para la gestión de residuos y que a medida que se vaya avanzando irán informando sobre ello.

Montse Arana pregunta al alcalde sobre los plazos previstos.

El alcalde manifiesta que prevén que la mesa de trabajo se reúna en la primera o segunda semana de octubre.

No habiendo más temas que tratar, el alcalde-presidente da por finalizada la sesión cuando son las siete y treinta minutos de la tarde y yo, la secretaria accidental, doy fe.

Alcalde Secretaria Accidental